



**Arartekoaren 2015R-2508-14 ebazpena, 2015eko irailaren 1ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio bertan behera utz dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) baten prestazioaren etendura.**

### Aurrekariak

2014ko abenduaren 4an (..) andreak sustatutako kexa bat izapidetzea onartu zen. Kexa aurkezteko arrazoia zen Lanbideren azaroaren 23ko berariazko ebazpen baten bidez DSBE baten prestazioa eten zela. Arrazoia *"Lan-eskaintza bateko hautapen-prozesuan parte hartzeari uko egitea"* izan zelarik.

Kexagileak azaldu zuen uko egin ziola prozesuan parte hartzeari, ebazpenak zioen bezala, aldi berean Lanbideek eskaintako ikastaro bateko nahitaezko praktikak egin behar zituelako.

Kexagileak erakunde honi azaldu dionaren arabera, 2014ko ekainaren 3an Gasteizko Udaletik deitu zioten telefonoz eta azaldu zioten parte har zezakeela enplegu-eskaintza batekin lotutako hautapen-prozesu batean. Dirudienez, kexagileak telefono-solaskideari azaldu zion gaitz izango zuela prozesu hartara joatea, aldi berean ikastaroaren azken fasea izango zen eta.

Abenduaren 1ean lehen aipatutako Lanbideren idazkia jaso zuen, hots, azaldutako arrazoiagatik DSBE jasotzeko eskubidea eten zuen ebazpena.

Idazki hari erantzuteko, abenduaren 3an kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen. Errekurtsu hartan alegazio gisara azaldu zuen ez zitzaiola modu formalean eman lan-eskaintzaren berri, telefonoz baino (dirudienez, ez zuen beste kontakturik izan Lanbiderekin), eta gaineratu zuen erakunde horren ikastaroko nahitaezko praktiketara ez joatea ezarritako betebeharrak bat haustea izango zela; beraz, bi betebeharren artean hautatu behar izan zuen.

2015eko urtarrilaren 7an Arartekoak idazkia bidali zion Lanbideri gai honen inguruko gogoeta batzuen berri emateko, kexagileak azaldutako zalantzen ildotik. Hain zuzen ere, hauxe adierazi genuen: *"Lanbidek emango digun informazioa oraindik eskuartean izan gabe, uste dugu kasu honetan kexagilea etetea ekidin zitekeen egoera batean zegoela, hautaketa-prozesuan parte hartzeari uko egiteagatik, edo nahitaezko praktika batzuk uzteagatik.(...) zure iritzia zein den jakin nahiko genuke, hau da, kexagilea egiaz diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea ekidin ezin izan zuen egoera batean zegoen, edo kasu hau hobeto ulertzeko balio dezaketen beste datu batzuk dauden."*





Erantzunik ez zegoela ikusita, otsailaren 20an errekerimendua bidali genion Lanbideri gogorarazteko Euskadiko herri-administrazioek ezarritako epealdiaren barruan egin behar dietela jaramon Arartekoaren informazio-eskaerei.

Lanbideren erantzuna jaso baino lehen, martxoaren 18an kexagileak jakinarazi zigun Lanbidek etenduraren kontrako errekurtsioa ezetsi zuela martxoaren 3ko ebazpen baten bidez. Hauxe zen ebazpen horren oinarri nagusia: *“se constata que a D<sup>a</sup>. (...) le llamaron el 3 de junio para una oferta de empleo (nº 162014004243) para trabajar, con un contrato temporal de 6 meses, en Vitoria de peón de limpieza por un plan de empleo con el Ayuntamiento de Vitoria. La recurrente estaba haciendo las prácticas de un curso de formación de Lanbide con una duración desde el 26 de mayo hasta el 23 de junio de 2014. D<sup>a</sup>. (...) rechazó presentarse a la oferta porque estaba muy ocupada en esas fechas con las prácticas del curso. Teniendo en cuenta que las prácticas acababan el 23 de junio y que iban a coincidir unos pocos días con el trabajo, incumple una de las obligaciones de todo perceptor de RGI que es estar disponible para el empleo y rechazar una oferta de empleo adecuada, tal y como recoge el artículo 12.2 del Decreto 147/2010, de 25 de mayo (...)”*.

Gainera, ekainaren 16an kexagileak bere DSBERen espedientea berrikusteko prozeduraren barruan Lanbidek maiatzaren 22an emandako ebazpen baten kopia helarazi zigun. Hauxe ebatzi zen: *“Eskubidea etenda mantentzea, honako arrazoï hauetan oinarrituta: “azken 6 hilabeteetan enplegu bati nahita uko egin izana” (sic).*

Azkenik, uztailaren 3an Lanbidek gure informazio-eskaerari emandako erantzuna jaso genuen.

Erantzun horretan Lanbidek ez dio ezer Arartekoak informazioa eskatzeko idazkian azaldutako gogoetaz; hauxe baino ez du adierazten: *“Interesdunaren espedientea aztertu, eta ikusi dugu bere espedienteak honela dioela: “162014004243 eskaintzarako aukeraketa-prozesuan parte hartzeari uko egin dio (...)--> Alegazioetan, berretsi egin du”. DBEri buruzko araudiak (147/2010 Dekretuko 50.2 artikulua) xedatzen duenez, lan-eskaintza bati uko egiren dioteneke urtebeteko zigorra bete behar dute. Eskatzaileak azaldu egin zuen lan-eskaintzari uko egiteko arrazoia (ikastaro bat egiten ari zen eta praktikak egin behar zituen nahitaez), baina ez genuen hartu justifikaziotzat, eta ordainketa hamabi hilabetez etetea erabaki genuen”*.

Beraz, Lanbidek ez du egin eskatutakoa, eta baitigu argitu kexagileak benetan DSBERen prestazioaren etendura saihesteko modurik eduki zuen ala ez; lehendik bagenekiena baino ez du azaltzen.

### Gogoetak

Aipatu behar da diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten bizikidetzak unitateetako kideek nahitaez hartu behar dutela parte lanerako hautapen-prozesuetan eta nahitaez onartu behar dituztela eskaintzen zaizkien enpleguak, oro





har. Beraz, uste dugu bidezkoa izan litekeela pentsatzea kexagileak ez duela bete DSBE baten titularra den aldetik dauzkan betebeharrak. Lanbideren esku dago ebaztea kexagileak hautapen-prozesuan parte ez hartzeko edo enplegu-eskaintza ez onartzeko emandako justifikazioa nahikoa den ala ez.

Hala ere, uste dugu Lanbidek espediente honetan egindako jarduketa batzuk nahasmendua sortzeko modukoak izan direla, bai kexagilearentzat, bai erakunde honentzat; hona azalpena:

1. 18/2008 Legeko 28.1.i) artikulua arrazoi hau ezartzen du DSBE jasotzeko eskubidea azkentzeko: *"aplikatzeko modukoa denean, behin uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe, indarreko legediaren arabera egokia den enplegu bati edo diru-sarrerak handitzea ekar lezakeen lan-baldintzen hobekuntza bati"*.

Beste alde batetik, 147/2010 Dekretuko 50.2 artikulua, Lanbidek erakunde honi emandako erantzunean aipatzen duenak, hauxe ezartzen du: *"prestazioa azkentzeko arrazoiak betebeharrak ez betetzea edo arau-haustea egitea izan bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu (edozein izanik ere modalitatea) eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte"*.

Horrenbestez, DSBEren araudiak ezartzen du enplegu-eskaintza bati edo lan-egoera hobetzeari uko egitea prestazioa azkentzeko arrazoiak dela eta horrek berekin dakarrela urtebetean beste eskaerarik ezin aurkeztu izatea.

Hala ere, daukagun informazioak ez digu aukerarik ematen ondorioztatzeko nola kalifikatu duen Lanbidek kexagileak egin duena. Beste alde batetik, kexagilearen DSBEren prestazioaren etendura ekarri duen prozeduran Lanbidek akats batzuk egin ditu, eta jarraian azalduko ditugu.

2. Espedientean agertzen den Lanbideren lehen jarduketa 2014ko azaroaren 23ko ebazpena da; bertan arrazoi hau aipatzen da DSBEren prestazioa eteteko: *"Lan-eskaintza bateko hautapen-prozesuan parte hartzeari uko egitea"*.

Bigarrena kexagilearen aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpena da. Ebazpen horren hirugarren oinarri juridikoan eskaintza bat aipatzen da: *para trabajar, con un contrato temporal de 6 meses, en Vitoria de peón de limpieza por un plan de empleo con el Ayuntamiento de Vitoria*; aldiz, aurrekarietan *no cumplir las obligaciones derivadas de su condición de titular de la Renta de Garantía de Ingresos (...) rechazar participar en el*





*proceso de selección de una oferta de empleo”* aipatzen da. Hau da, ebazpenean batetik adierazten da kexagileak uko egin diola enplegu-eskaintza bati eta bestetik ez duela parte hartu nahi izan langileak hautatzeko prozesu batean; gure ustez horiek gauza oso desberdinak dira.

Hirugarren jarduketa espedientea berrikusteko prozeduraren barruan emandako ebazpena da; horren bidez hauxe erabaki da: *“Eskubidea etenda mantentzea, honako arrazoi hauetan oinarrituta: “azken 6 hilabeteetan enplegu bati nahita uko egin izana (sic).*

Erabakian adierazikotik ondorioztatzen da Lanbide DSBEn prestazioaren etenduraz ari dela, baina aplikatzen dituen ondorioak eskubidea betebeharrak ez betetzeagatik edo arau bat hausteagatik azkentzen denekoak dira (urtebete pasatu behar izatea prestazioa berriz eskatu ahal izateko, 18/2008 Legeko 28.3 artikulua eta 147/2010 Dekretuko 50.3 artikulua), eta horregatik ezin daiteke zehaztu zergatik kexagileak ez duen errenta jasotzen.

Orobat, jarduketa horietan Lanbidek batetik esaten du kexagileak uko egin diola enplegu-eskaintza bati (lana nolakoa zen eta zenbat iraungo zuen argitzen da) eta bestetik ez duela parte hartu nahi izan langileak hautatzeko prozesu batean, bietan kexagilearen jarduketa beraz ari dela.

Uste dugu espedientearen alderdi hauetan jarri behar dela arreta, nahasmendua sortu duten elementuak dira eta.

3. Lanbidek inon ere ez du adierazten prozedurak DSBEn prestazioan daukan eragina eskubidea azkentzea denik; aitzitik, eskubidearen etenduraz ari da beti, nahiz eta batzuetan azkentzearen inguruko araudia aipatu.

Gogoeta hauetako lehen puntuan esan den bezala, enplegu-eskaintza bati uko egiteak DSBE jasotzeko eskubidea azkentzea dakar, ez beraren etendura, 18/2008 Legeko 28.1i) artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik (gorago txertatu da).

Hala ere, Lanbidek kasu honetaz emandako ebazpen guztietan eskubidearen etendura aipatzen da, bai hasierako etendura adierazten duen ebazpenean, bai aukerako berraztertze errekurtsoari buruzkoan (errekurtsoa ezetsi eta lehenengo ebazpena berretsi du), bai etendura urtebetekoa izango dela finkatu duen ebazpenean.

Arartekoari emandako erantzunean Lanbidek 147/2010 Dekretuko 50.2 artikulua aipatzen du eta esaten du *urtebeteko penalizazioa ezartzen duela enplegu-eskaintza bati uko egiteagatik*, baina adierazpen hori oker dago,





gogoeta hauetako lehen puntuan hitzez hitz txertatu dugun testuak erakusten duen bezala, benetan ezartzen baitu titularrak urtebetean ezin duela eskatu berriro DSBE jasotzeko eskubidea berari egozten zaion arrazoi batengatik azkendu ondoren (gorago aipatu den 18/2008 Legeko 28.3 artikulua garapena).

Beraz, Lanbidek okerreko edukia esleitzen dio Legean ezarritakoari, zeren "penalizazioa", hots, urtebetean berriz DSBE ezin eskatu izatea, betebeharren bat ez betetzeagatik edo arau bat hausteagatik ezartzen baita, ez erakunde horrek esaten duenagatik (147/2010 Dekretuko 50.2 artikulua dio ezin dela eskatu beste prestazio bat; ez lehengo bat atzera jasotzerik ez dagoenik).

4. Beste alde batetik, gure iritziz kexagilearen jarduketa kalifikatzeko modua zuzena izan den ere ez dago argi.

Esan dugun bezala, errekursoaren ebazpenaren hirugarren oinarri juridikoan enplegu-eskaintza bati uko egin izana aipatzen da, eta eskaintza nolakoa zen zehazten da. Espedienteko puntu honetan baino ez da aipatzen kexagileak enplegu bati uko egin diola; gainerako puntu guztietan, are errekursoaren ebazpeneko bigarren aurrekarian ere (hau garrantzitsua da), azaltzen da langileak ez duela parte hartu nahi izan hautatzeko prozesu batean.

Uste dugu ezin direla modu berean baloratu enplegu-eskaintza jakin bati uko egitea eta hautapen-prozesu batean parte ez hartzea: eskaintzan lan egiteko aukera benetakoa eta berehalakoa da; hautapen-prozesua, oster, ez.

Lanbidek aukerako berraztertze errekursoaren ebazpenean dio kexagileak *ez duela bete DSBE jasotzen duten guztiei ezarritako betebeharrak bat, hain zuzen ere prest egon behar direla lan egiteko eta ezin dietela egin uko enplegu-eskaintza egokiei, 147/2010 Dekretuko 12.2 artikuluan ezartzen den bezala.*

147/2010 Dekretuko 12.2 artikulua hauxe xedatzen du: *"Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren titularrek, artikulua honen 1. paragrafoan aurreikusitakoez gain, beste betebeharrak hauek ere izango dituzte: (...) Titularra eta lan egiteko adina duten bizikidetzak-unitateko kideak lanerako prest egotea (...). Prestasun horrekin batera konpromisoa hartu beharko dute enplegu-eskaintza gisa iraunkorki inskribatuta egoteko (...) enplegu egoki bati uko ez egiteko, enplegua ez behin betiko ezta aldi*





*baterako ere ez uzteko, eta muturreko kasu justifikaturik gabe lanaldi-murrizketa edo lan-eszedentzia ez hartzeko".*

Testuaren transkripzioak erakusten duen bezala, egia da batetik lanerako prest egon beharra ezartzen dela eta bestetik enplegu-eskaintze uko ezin egin izatea. Baina, hori gorabehera, inon ez da zehazten biak betetzen ez direnean ondorioa bera denik.

Izan ere, lehen ere esan den bezala, 18/2008 Legeko 28.1i) artikulua ezartzen du enplegu-eskaintza egoki bati uko egiteak DSBE jasotzeko eskubidea azkentzea dakarrela; aldiz, lege bereko 26.1b) artikulua dio eskubide hori eteten dela ondoko kasuan: "(...) aplikatzekoa denean, laneratzeko prest ez egotea (...)".

5. Gasteizko Udalaren jakinarazpenean ez dira bete 30/1992 Legeko 59.1 artikuluan ezarritako baldintza guztiak; hona zer dioen: *"Jakinarazpenak egiteko edozein bide erabil daiteke, beti ere interesdunak edo bere ordezkariak hartu izanaren agiria jasota geratzen bada, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen jasota geratzen bada. Egindako jakinarazpenaren egiaztagiria espedienteari atxikiko zaio".*

Daukagun informazioaren arabera espedienteen modu batean bakarrik dago jasota, hain zuzen ere telefono deiaren bidez. Hori gorabehera, komunikazioa ez zen bideratu legean ezartzen den bezala.

Horregatik, eta beste gauza batzuen artean, ez dago modurik jakiteko nolakoa zen udalak jakinarazitako proposamena (hots, ezin daiteke jakin enplegu jakin baten eskaintza zen edo hautapen-prozesu batean parte hartzeko aukera), ez eta nola kexagileak proposamena nola ezetsi zuen eta ezetz esateak edukiko zituen ondorioen berri azaldu zitzaion ere.

Horri kontuan eduki beharreko beste elementu bat gehitu behar zaio: kexagilea atzerritarra da eta ez dakigu telefonoz egin zitzaion proposamena bera eta uko egiteak eduki zitzakeen ondorioak argi ulertzeko gauza izan zen.

6. Azkenik, ebazpen honetan aipatu dugun kasu honen alderdi bat azpimarratu nahi genuke: aipatutako arautegiaren arabera enplegu bati uko egiteak ez dakar berekin beti errenta jasotzeko eskubidea azkentzea, horretarako baldintza jakin batzuk gertatu behar dira eta, hain zuzen ere enplegua egokia izatea eta uko egiteko bidezko arrazoirik ez egotea.





Kexagileak dio Gasteizko Udalak telefonoz jakinarazitako proposamenari uko egiteko arrazoia izan zela nahitaezko praktikak egin behar izatea Lanbideren ikastaro bat amaitzeko. Gogoeta hauetako goiburuan esan dugun bezala, uste dugu hein batean Lanbideren esku dagoela zehaztea kexagileak esandakoa justifikaziotzat onartu daitekeen 147/2010 Dekretuko 12.2 artikulua araberera.

Baina, halaber, uste dugu ezen, kontuan hartuta kexagilearen alegazioek xede bera eduki dutela, Lanbidek azaldu behar ziola zergatik ez duen hartzen bidezko justifikaziotzat (147/2010 Dekretuko 12.2 artikulua) Lanbideren ikastaro bateko nahitaezko praktikak egin behar izatea.

Ez dakigu Lanbidek edo Gasteizko Udalak kexagileari telefonoz azaldu ote zioten nolako ondorioak eduki zitzakeen proposamenari uko egiteak. Hori ez jakiteak kalte handia egin zien kexagilearen interesei; beraz, proposamenean berariaz azaldu behar zen. Gainera, ez dakigu hautapen-prozesuan parte ez hartzeak (edo enpleguari uko egiteak) izango zituen ondorioen berri eman zitzaion ala ez.

Nolanahi ere, Lanbidek kexagilearen jarduketa ez zehazteak (batetik esaten du ez duela parte hartu nahi izan hautapen-prozesu batean eta bestetik uko egin diola enplegu-eskaintza bati) zailago jarri du horrek eduki litzakeen ondorioen berri ematea, jarduketaren kalifikazioaren araberakoak dira eta.

Aipatu dugun bezala, telefonoz jakinarazi zen hautapen-prozesu edo lan-eskaintza baten berri. Beraz, ez dago inon jasorik ez zer informazio eman zitzaion kexagileari, ez nola eman zitzaion.

Lanbidek ez ditu alderdi horiek argitu informazio-eskaeren ondoren Arartekoari bidali dizkion idazkietako batean ere.

Arartekoaren iritziz, hautapen-prozesu batean parte hartzeko aukeraz (edo lan-eskaintzaz) kexagileari informazioa emateko erabili den bideak ez ditu betetzen DSBEren prestaziorako eskubidean eragina izateko moduko bermeak. Telefono-dei bat egitea, horren edukia berariaz jasorik utzi gabe, ez da behar adinako bermeak betetzen dituen bidea.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat, honako gomendio hau egiten da:





## GOMENDIOA

Ondoriorik gabe utz dadila DSBerako eskubidearen etendura, ez direlako bete administrazio-jarduketa guztietan bete behar diren oinarrizko formalitateak eta bermeak.

